

anbar digitala

ikusten dut aditzen dut aditzen ditut emozioak dena beterik dena hutsik dena izozturik eguerdiko argian gauerdikoan ikusten ditut eraikinak asko autoak zenbait jendea gutxi dabilena ez dabilena begira dagoena begiratzen diotena bere baitan bildua adia galdurik ikusten ditut karrikak plazak eraikinak eraikinak kanpokoak barnekoak eraketan hiri eraketan bizia eraketan begirada eraketan ikusten dut aditzen ditut eraikinak etxebizitza-eraikinak bulego-eraikinak gorputz-eraikinak gorputz erakina gorputz gisa hiri gorputz gisa hiriaren gorputza hiriak hiriak eta eraikinak bizirik hilik aditzen dut hotza ikusten ditut eraikinak eraikinak eskeleto gisa eraikinen eskeletoak isilik isiltasuna ikusten dut aditzen ditut isiltasunak eraikinak disezcionaturik zatiturik metaturik garrasika aditzea ikustea imajinatzea irudiak irudigintza irudimena teknokultura eta irudigintzaren artea irudigintza irudimena artea teknokulturaren garaian teknologikoaren kultura kameraren begiaren kultura kamera eskuan irudiak kameraren-begiaren garaian Denis Arkadievitch Kaufman, Dziga Vertov ezizenekoa (1896 - 1954) *Chelovek s kinoapparatom (El hombre de la cámara, 1929)* <http://www.sensesofcinema.com/contents/directors/03/vertov.html> kameraren-begiaren irudigintza izoztua exo-irudigintza exo-eskeletoa exo-begia, zeina hau ez den, jaiotzetiko-nirea endo-begia, zeina hori baden, erostetiko-nirea, megapixelak USB konexioa zoom digitala irudiak inprimagailuaren kulturako garaian eskua-inprimagailuan margoak inprimagailuaren-eskuaren garaian kameraren tekno-artea kamerapaseoan kameraren paseoa hirian barna paperean arte zaharra paperean marraztekoan arte berria marrazkiarena Peter Greenaway (1942) *The Draughtsman's Contract* (1982) www.petergreenaway.com/ artea kamera inprimagailu paper guraiz eurteetan *cut & paste* arte zahar/berriacollagearena arte berri/zaharramontagearena *cadavre exquis* irudiaren dotoretasuna hilotz eder gisa artea erailtzeko era eder gisa artea oroitzapena den aldetik oroitzapenaren artea artea begiak igurztekoa eskuak sinesgogor txunditurik artea *frotage* gisa ikustezkoa zentzumenezkoa artea *tsunami* egoeran dena lehertzen da denak egiten du hegan dena gainjartzen da bektoreak usoak hostoak hitzak hitzak hitzen gainean galdurik inoiz entzun gabekohitzen barnean isilduriko hitzen artean eraikinak eta isiltasunak artea lokatze ordenan hiperimajinarioa irudiak irudien-artetik intro-irudiak zeinak paseoak diren desirak diren oroipenak diren ametsak diren irudia toles bertikal gisa horizontal gisa panoramika gisa *travelling* gisa irudia toles metriko bikoitz egoeran hiri irudiak kode isometrikoan <http://www.architectural-rendering.org> hiri irudiak *computer-game* motakoak konputagailu estetika bideo-joko hizkuntza hiri irudiak *SimCity* kodean <http://simcity.ea.com/> hiri irudiak postmodernotasunean eBoy <http://hello.eboy.com/eboy/index.php> hiri irudiak dibertimenduan *Hiri-Kras* Xabier Idoate. Pamiela argitaletxea. Iruñea.1996 irudia tolesa zabaltzeko egoeran pareta-irudiak horma-irudiak hiri-irudiak hiriaren irudia irudia hiriaren ordeztu irudiaren hiri hiri jostailuzko maketa gisa irudia hiri maketa gisa ⁿ potentziaren eskalan irudia irudi gisa ⁿ potentziara berretua berregarria irudia azpi-irudien irudia azpi-azpi-irudiena irudia eta zehatza irudia eta infinitua infinitua eta zehatza irudiaren artea artea eskalan irudia eskalan irudiaren eskala sailaren artea seriazioa palimpsestoaren artea kiribila sartzea barneratzea ateratzea kanporatzea iruditik nahasketaren artea gurutzatzea gurutzatzea manipulazioa irudiena irudiak irudien barnean barnearen barnean irudiak irudi harri bihurtuak fosilduak bete-beteko mugimenduan bete-beteko kolorean bizia eta hila bizitza eta irudia bizitzaren irudia heriotzarena irudi digitalena post-digitalena eraikin bete/hutsak eraikin bizi/hilak eraikin kristalduak sorgin-orratz batek Postdammer Platz-en gainetik hegan egiten du espaziotik at soinutik at denboratik at denboratik at geldituriko espazio baten eta soinu baten irudiak izozteko artea kristaltzekoa denbora kristalinoak irudi satinatuak argidunak dena argia da dena argitasuna da dena beldurra da dena heriotza da heriotzaren argitasuna heriotzaren bakea *The World, the Flesh and the Devil* (1959) Randal MacDougall (1915-73) *The Purple Cloud*-gainean (1901), M.P. Shiel-en nobela (1865-1947) <http://alangullette.com/lit/shiel/> eraikinak irudiak bizia anbar tanta batean kristalduriko biziaren irudiak digitala anbar digitala Xabier Idoateren irudiak ez dira inprimatuak inprimatu ondokoak ez dira argazkiak argazki ondokoak ez dira irudiak irudi ondokoak anbar dira anbar-irudiak koloretan kolorearengatik ere kolorengatik eta biziarengatik ere biziaren aurrean bizirik gabe kolore biziak distiratsuak aurkakoak biziari kontrajarriak bizitza kristaldua geldirik denboran anbarrezko hasperen batean anbar-irudiak kolorea sartzen da lehertzen da ateratzen da iluntasun izpi bat bezala argi hodei bat bezala estali erakusle lausodura kolorea lausodura gisa zeina erortzen den han erortzen den hartan hor ez legokiokeen tokian hemen ezer ez legokeelako erantzuten du dena isilik dagoelako eder edertasun digitala anbar digitala

Xabier Idoateren irudiak.

Joaquim Dols Rusiñol
Bartzelona, 2006ko ekaina